



EBAZPENA, 2021EKO URTARRILAREN 26KOA, HEZKUNTZA SAILEKO KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIARENA, ESKOLA-GARRAIOAN OHIZ KANPOKO BAIMENAK ARGITARA EMATEN DITUENA

69/2015 Dekretuak, maiatzaren 19koak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari -garraioaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari- buruzkoak, azaroaren 26ko 186/2019 Dekretuak emandako idazketan, 6.2 e) artikuluan xedatzen du salbuespen gisa, eta 5. artikuluko c) idatzi-zatian aipatu distantzia-betekizuna konplitzea eskatu ezin bada ere, ikastetxearen kokapenaren ondorioz joan-etorrietarako zailtasun bereziak badira, eta kontuan izanik zonako hezkuntza-eskaintza, behin-behinean erabiltzeko baimena eman ahal izango dela.

Eskola-garraioaren jarraipen batzordeak, 2021eko urtarrilaren 25ean egindako bileran, behin-behineko baimena izango duten eskaerak berretsi ditu, eta beraz aipaturiko edukiei, publizitatea ematea dagokio.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

www.euskadi.eus webgunean eskola-garraioarako eranskinean jasotzen diren ohiz kanpoko baimenen zerrenda argitaratu dadila agintzea.

Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 26an

Ane Urkiola Alustiza
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN